

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Cargoback-en bidez, Txinan ekoitzitako betaurrekoak erosiko ditugu. Betaurrekoak, Sunglassescolor enpresak egingo dituzte. Esan bezala, Sunglassescolor enpresa Txinatarra da.

cargoback.com

Sunglasses Color-en bazkide izan da, betaurrekoak egiteko ahalmena izango dugu, haiek baitira prezio onenean egiten dituzten enpresak. Bazkide izanda, prezio onean erosiko genuke.

The logo for Sunglassescolor, featuring the word "SUNGLASSESCOLOR" in a sans-serif font. The "O" in "COLOR" is stylized with a red-to-orange gradient and a white highlight, making it stand out from the rest of the text which is in a dark grey color.

Hasieran, Euskadin zehar produktua mugitzeko eta bezeroei iristeko, Transportes Donostiarra enpresa kontratatuko dugu. Enpresa honek gainera Astigarragan duenez egoitza, gure ofizinatik betaurrekoak bertara mugitzea errazagoa izango da guretzat gertutasunarengatik. Hauek, betaurrekoak Euskadiko alde ezberdinetara garraiatzeaz arduratuko dira. Produktua arrakasta baldin badu, Espainia osoan zehar mugituko dugu.

Guk, Dalton Company-n egingo genuke produktuaren azterketa, akatsak dituen edo ez. Azterketarako, langile batzuk kontratatuko genituzke. Langileen kualifikazioak ez luke oso handia izan behar, produktuak aztertu beharko dituzte, eta arazoren bat balego, oharra eman.

Produktua online salduko dugu. Izan ere, sare sozialetan perfilak izango ditugu (Twitter, Instagram, Facebook), bezeroekin harremanetan egoteko. Gainera, gure web- orria izango dugu.